

HERRIKO BILTZARRAREN BILKURA

KANBOKO HERRIA - 2018ko ekainaren 4ean

Herriko Biltzarra Herriko Etxean bildu da Bernadette JOUGLEUX anderearen presidentzia pean, 2018ko ekainaren 4ean 19:00etan.

Hor ziren: Bernadette Jougleux, Auzapeza, Christian Devèze, Eliane Noblia, Frédéric Bardin, Pascale Lespade, Didier Irastorza, Eliane Aizpuru, Henri Saint Jean, auzapez ordeak, Christiane Hargain-Despéries, Patrice Dor, Yolande Huguenard, Argitxu Hirigoyen, Jean-Noël Magis, Corinne Othaceguy, Peio Etchelecu, Carmen Gonzalez, Pascal Bourguet, Véronique Larronde, Camille Jenvrin, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie, herriko biltzarkideak.

Ezin etorriak: Anne-Marie Pontacq, auzapez ordeak, Vincent Bru, Vincent Goytino, Jean-Jacques Lassus, Maryannick Hirigoyen, Roger Barbier, herriko biltzarkideak.

Ahalordeak: Anne-Marie Pontacq-ek Christiane Hargain-Despéries-ri, Vincent Bru-k Bernadette Jougleux-ri, Vincent Goityno-k Jean-Noël Magis-i, Jean-Jacques Lassus-ek Didier Irastorza-ri, Maryannick Hirigoyen-ek Yolande Huguenard-i, Roger Barbier-ek Eliane Noblia-ri.

1 – Saioko idazkariaren izendapena.

Presente diren biltzarkideek aho batez Argitxu Hirigoyen anderea izendatzen dute saioko idazkari.

2 – Aitzineko saioaren bilkura-aktaren onarpena.

Auzapez andereak biltzarkideei galdegiten die ea oharrik ba ote duten egiteko 2018ko martxoaren 26ko saioaren aktari buruz. Oharrik ukan ez duela adierazten du.

Beste oharrik egin ez baita, aitzineko bilkura-akta aho batez onartua da.

3 – Behereko Plazako eskolan eraikin berri baten eraikitzea: enpresen izendapena.

Noblia andereak oroitarazten du 2016ko abenduaren 5eko eta 2017ko otsailaren 20ko bilkuretan Herriko Biltzarrak Behereko Plazako eskolan eraikin berri bat egitea balioetsi zuela, egitura aurrefabrikatua ordezkatzeko.

Eraikin berria eskolan ongi integratua izanen da, aurrefabrikatuaren lekuan, 100m²ko azalera batekin. Kurtso eta motrizitate gela bezala erabiliko den erabilera anitzeko gela bat, biltegitratze gela bat eta atari bat komun bereziekin (neska/mutiko) izanen ditu. Egitura berria aterpeari zuzenki lotua izanen da. Gomendatua izan da oraingo aterpe horren teilatua zaharberritzea, "éverite" estaldura duelako.

Proiektu horrentzako Herriak Eliane Mendiboure arkitektoarengana jo du. Aurreikusten den aitzinkondua ZK 263 000 €koa da, eta honela banatzen da:

- ZK 33 000 € : obra koordinatzaile gastuak, ikerketak, diagnostikoak eta horrelako lan batentzat behar diren eginkizun guztiak,
- ZK 230 000 € eraikuntza lanentzat (arkitektoak sailka balioztatua),

Proiektu honentzat frantses Estatuko Baserri Lurraldeetarako Ekipamendu Zuzkidura (BLEZ) "DETR 2017" onartua izan zaigu (88 500 €) baita erreserba parlamentaria ere (10 000 €).

Lanak 2018ko udako oporretan hasiko dira eta 7 hilabete iraunen dute, 2018ko abendura arte.

Horretarako, deialdi publikoa plazaratu dugu, dagokion prozedurarekin, 2018ko martxoaren 12an. Hautagaitzak 2018 maiatzaren 3ko 12:00etarako helarazi behar zituzten. Orotara, atal guztientzat, berrogeita bi proposamenetatik hamalau elektronikoki egin dira. MAPA batzordea 2018ko maiatzaren 3an bildu da 14:45etan, eskaintzak irekitzeko.

Deialdi araudian ematen ziren sailkapen irizpideen araberrako eskaintzen analisisia arkitektoak MAPA batzordeari aurkeztu zizkion 2018ko maiatzaren 23an, enpresak izendatzeko xedearekin. Arkitektoak Herriko Biltzarrari proposatu dio sail bakoitzarentzat eskaintzarik merkeena atxikitzea. Hona hemen proposamena:

- 1. Atala: Desegitea - Amianto kentzea: Idauze-Mendiko ARLA enpresa, 28 271 € ZK,
- 2. Atala: Obra nagusia - Lur-mugitzea - Hoditeria eta sareak - Estankotasuna: Itsasuko USTABAT enpresa, 85 000 € ZK,
- 3. Atala: Habeteria - Teilatua - Zinka: Azkarateko IRIART enpresa, 16 940,50 € ZK,
- 4. Atala: Aluminiozko leiho eta ateak: Baionako ALCHUTEGUY enpresa, 24 097 € ZK,
- 5. Atala: Zureriak: Azkarateko HIRIART enpresa, 6 032,40 € ZK,
- 6. Atala: Isolamendua - Paretak - Soailuak: Morlaas-eko P PLATRE enpresa, 5 311,16 € ZK,
- 7. Atala: Zolak - Faiantzak: Serres-Castet-eko PAU PEINTURES/PAU SOLS SOUPLES enpresa, 7 406,90 € ZK,
- 8. Atala: Tindua: Ezpeletako HARGAIN enpresa, 5 518,16 € ZK,
- 9. Atala: Elektrizitatea - Berogintza: Kanboko CHAPELET-ST JEAN enpresa, 15 907,57 € ZK,
- 10. Atala: Aireztatzea - Iturgintza: Biarritzeko FAUTHOUX STE NOUVELLE enpresa, 19 634,11 € ZK.

Orotara, 214 118,80 € ZK.

Beyrie andereak Behereko Plazako eskolako zuzendariak eskolen kutxako bilkuran egin zituen galderak oroitarazi ditu, besteak beste ur infiltrazioak eta gela baten eskasa lanen denboran.

Noblia andereak ihardesten dio gai hauek Behereko Plazako eskola Kontseiluan aipatu zirela, eta goizean berean eskolan izanak zirela Zerbitzu Teknikoetako Zuzendaria eta Eskolako Zuzendariarekin. Ur itokinei dagokienez, zerbitzu teknikoek arazoa aztertuko dute; eta bigarren galderari dagokionez, margo-gela antolatzen ari dira eta sartzerako prest izanen da. Aterpea aldiz lanen denboran ezingo da erabili; « barnum » bat ezartzea pentsatzen dute. Lanek iraungo duten denbora osoan, eskolarako sartze berri bat egingen dute hesia segituz, haurrentzako jokoan lekutik eta sartzea gibeletik egingen da.

Hiriart-Urruty andereak suposatzen du joko horiek Behereko Plazako hurrek erabiltzen zituztela.

Noblia andereak erantzuten dio joko horiek arras guti erabiliak zirela, ondorioz hondatu eta arauak ez zituzten gehiago betetzen.

Auzapez andereak gehitzen du herriko haurrentzako joko guziak kontrolatu dituztela. Arauetara egokitzea biziki garesti baitzen, herriak San Josepe parkeko joko-eremua osoki berritza erabaki zuen, jokoak nolana konpontzeko orde. Egia da Behereko Plazako jokoak hurrek ez zituztela baliatzen, ezta eskolako hurrek ere. Ondorioz, jokoak hondatu dira.

Aiçaguerre andereak zehazten du bere galdera ez dela solasgaietan agertzen. Donapetriako jokoak ere kendu dituzte eta auzokoek galdegin diotela noiz berriz ezarriko dituzten. Honela ez lukete autoa hartu beharko herri erdira joateko. Auzo horretan bada belaunaldi gazte bat, haur gazteekin, eta jokoak nahi lituzkete beren auzoan.

Auzapez andereak ihardesten dio joko horiek aspaldian kenduak izan zirela. Baliteke herri erdira etortzeko autoa hartu beharra aspergarri izatea, baina familia batzuk Senperetik, Uztaritzetik eta Ezpeletatik joaten dira San Josepe parkera. Diru arrazoiengatik herriak nahiago izan du leku on bat antolatzea San Josepe parkean.

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Aho batez onartua.

4 – Animazio aretoaren eraikuntza.

a) Enpresen izendapena.

Irastorza jaunak oroitarazten du 2017ko ekainaren 19ko eta irailaren 11ko erabakiekin, Herriko Biltzarrak animazio aretoaren (500m²koa) inbertsio proiektua balioetsi zuela. Gainera, AJL-Jacques LECCIA (mandataria) eta SA SETES (obra koordinatzailea) enpresak izendatu zituela.

Obra koordinatzailearekin egin hainbat bilkuren ondotik, proiektua finkatua izan da. Inbertsioaren aurreikuspena ZK 556 800 €-koa (altzariak aparte). Lanak jarraian egingen eta 6 ataletan banatuak izanen dira.

Lanak 2018ko urriaren 8an hasiko dira eta zazpi hilabete iraunen dute.

Deialdi bat egingo izan zen 2018ko apirilaren 16an enpresek beren eskaintzak 2018ko maiatzaren 23ko eguerdi aitzin egin zituzten.

MAPA batzordea 2018ko maiatzaren 23an bildu zen, asteazkenez arratsaldeko 14:00etan obra koordinatzailearekin batera eskaintzak irekitzeko. 2018ko maiatzaren 31an eskaintzak ikertu-eta, obra koordinatzaileak analisia txostena aurkeztu eta hautatu behar ziren enpresen zerrenda bat proposatu zuen, deialdi araudiaren sailkapen irizpideen arabera.

Aurkezpen horren ondotik, MAPA batzordeak honako enpresen zerrenda onestea proposatzen dio Herriko Biltzarrari, hauek baitituzte eskaintzarik merkeenak egin:

- 1. Atala: Desegitea - Zimenduak - Obra Nagusia - Inguruneak: BONLOC CONSTRUCTION enpresa, 124 639,02 € ZK,
- 2. Atala: – Metalezko teilatu egitura - Berinak - Tinduak: DL PYRENEES enpresa, 169 230 € ZK,
- 3. Atala: Sarrailak: DL PYRENEES enpresa 61 595€ ZK,
- 4. Atala: Teilatua - Zinka: ZINC ADOUR enpresa 43 851,74 € ZK,
- 5. Atala: Zureria: ITOIZ enpresa, 110 520,38 € ZK,
- 6. Atala: Elektrizitatea - Iturgintza: CHAPELET ST JEAN enpresa, 51 110,20 € ZK,

Orotara 560 946,34 € ZK.

Bacardatz jaunak ohartarazten du herriak eraikuntza berri anitz egiten duela eta trantsizio energetikoari begira, proiektu guztietan eguzki panelak eta beren amortizazioa kontuan hartu beharko liratekela. Animazio aretoaren eta Behereko Plazako eskolaren kasuetan, zurezko teilatu egiturak badira eta panel fotovoltaikoak ezar daitezke gastu handiegirik gabe.

Irastorza jaunak ihardesten dio Goytino jauna dela trantsizio energetikoaz arduratzen, eta zehazten dio SDEPA-k ikerketa bat egin duela herriko eraikin guztientzat.

Bardin jaunak eranstean du animazio aretoan ezin dela panel fotovoltaikorik ezarri, teilatuaren norabidea dela-eta. Hots, San Josepe parkean arbolak badirela eta itzala egiten dutela.

Bacardatz jaunak, bertara hurbildu dela eta aretoa argigune batean izanen dela erantzun dio. Uler dezake teilatua ekialde eta mendebaldera dagoela, baina teilatuaren azalera handia da.

Bardin jaunak zehatzen dio goizean eta egunean zehar bertaratu dela eta eguzkia lekuz aldatzen dela.

Bacardatz-ek, proiektu gehienetan, eraikinen esposizioa hauta daitekeela.

Auzapez andereak Bacardatz jaunari arrazoi duela galdera hori eginik, eta gehiengoarentzako ere gai hauek garrantzitsuak direla. Goytino jauna trantsizio energetikoari biziki atxikia zaio eta berarekin aipaturik, uste du ezinezkoa dela eguzki panelak ezartzea teilatua bi zatitan eta zinkez egina delako.

Devèze jaunak dio bera ez dela gai horretan aditua, baina batzuek eta besteak egin dituzten urraspideen arabera, ez dirudi fotovoltaikoa aterabide ona denik kasu guztietan. Ikerketak egin dira. Inportanteena da zenbat kosta dezakeen eta zer dakarkeen.

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Gehiengoz onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre eta Amaia Beyrie.

Hiriart-Urruty andereak bere taldearen bozka argitu nahi du. Bistan da proiektuarentzat atxiki diren lekuko enpresa guztien alde direla, baina hastapenetik eta behin eta berriz erran duten bezala beren iritzia ez da kontuan hartu, hots egitasmo horrek ez diola tokiko egiazko eskaera bati ihardesten. Kanbon hobe izanen zen ehun eta berrogeita hamar lagunei bazkari bat emateko gela handi bat, horren falta handia baitago. Eraikin berriak kostu handia du, 556 000 € eta ez die kanboarren behar guztiei erantzuten. Hori da hain zuzen bere taldeko kideen ez bozkatzeko arrazoia.

Auzapez andereak gai horri buruz jadanik erantzun ziola iragan biltzarrean. Gehiengoko taldeak milioi bat eurotik gorako bestelako areto bat eraikiko zukeen, baina herriak oraindik ez du hainbeste diru. Eta "proiektuak ez diela kanboarren beharrei erantzuten" dioenean, Auzapez anderea segur da kontrakoa dela eta etorkizunak arrazoi emanen diola.

Hiriart-Urruty eranstean du herriak gauzak alderantziz egiten dituela; lehenik eraiki eta ondotik ageriko zertarako balia daitekeen, beharren arabera eraikitzea baino.

Auzapez anderea ez da batere ados eta ez du utziko halakorik erraten. Oraingoz, Kanbon ez dago animazioak aterpetzeko lekurik, ez hatu-merkatuarentzat, ez merkatuarentzat, ezta ere karrikan

ematen diren ikuskizunentzat. Aretoa anitz erabiliko da. Bere ustez gehiengoko taldeak oposizioko taldearen galdera eta kezka berak ditu.

Hiriart-Urruty andereak Auzapez andereari Donibane-Garazira joatea iradokitzen dio. Han, merkatua egiten zen lekua egokitu dute. Aterpe hori hetsi dute barnean bazkariak egin ahal izateko.

Auzapez andereak erantzuten dio egia dela Donibane Garaziko merkatuko lekua aspaldian existitzen dela eta partzialki hetsi dituztela orain denbora guti. Herria aterpe batekin hasiko da, eta agian egun batez hetsia izanen da.

b) Obraren Gidaritza eta Koordinazio (OGK) eginkizuna.

Irastorza jaunak azaltzen du animazio aretoaren eraikuntzarako obraren gidaritza eta koordinazio eginkizuna beteko duen enpresa bat izendatu behar dela. Eginkizun horrek obraren gauzatzearen koordinazioan datza. Obra kudeatzaileak bete dezake eginkizun hori horretarako gaitasunak dituelarik edo bestela horretan berezitua den beste enpresa baten esku utz dezake.

Obraren gidaritza eta koordinazio (OGK) eginkizuna obra koordinatzailearen eginkizuna da. Obra agintaritza publikoaren eginkizunei eta honek obra koordinatzaile pribatuekin dituen harremani buruzko 1985eko uztailaren 12ko 85-704 legeko 7. artikuluan, eta obra agintari publikoek beren eginkizunak enpresa pribatuei emateari buruzko 1993ko azaroaren 29ko 93-1268 dekretuko 10. artikuluan zehaztua da. OGK eginkizuna nahitaezkoa da deialdi publikoa atal desberdinetan esleitzen denean.

Kasu honetan eginkizun hau ez zaio arkitekto bulegoari eman, harekin izenpetu dugun esparru-akordioaren arabera, eta ondorioz beste ikerketa bulego bati eman diezaiokegu. Honela, 2018ko maiatzaren 15ean kontsulta simple bat bideratu dugu lau ikerketa bulegoetara, posta elektronikoz, erantzuna 2018ko maiatzaren 23ko eguerdirako eskatuz.

MAPA batzordea 2018ko maiatzaren 23an bildu da, 14:30etan eskaintzak irekitzeko; bi bulegok erantzun dute:

- TSA, Basusarrin, 6 860 € ZK,
- AJL - Jacques LECCIA Architecte, Baionan 6 200 € ZK.

MAPA batzordea 2018ko maiatzaren 31an bildu da, Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariaren txostenaren berri hartzeko baldintza orriko irizpideak betetzen zituen ikerketa bulego bat proposatzeko.

Aurkezpen horren ondotik MAPA batzordeak Herriko Biltzarrari proposatzen dio eginkizun hori AJL Jacques LECCIA ikerketa bulegoari esleitzea, jakinez bulego honekin egin den negoziaketaren ondotik prezioa 5 700 € ZK-ra jaitsi dela.

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Gehiengoz onartua.

Ez dute bozkatu: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre eta Amaia Beyrie.

5 – San Josepe parkeko argiteria publikoa: enpresen izendapena.

Bardin jaunak oroitarazten du 2017ko abenduaren 11ko erabakiarekin, herriak San Josepe parkea eta bere inguruneak berdinizatu eta balioan ezartzeko proiektua balioetsi zuela, leku hori erakargarriagoa izan dadin. Nahiz eta estetika kontuan hartu izan den, gaueko paisaia berezia sortuz, funtsezko urraspideak argiteria aldatzean datza, energia aurrezteko, egunaren iraupena kontuan hartzeko, argien eragozpenak murrizteko eta hiriko zerbitzu egokituaren eraginkortasuna zaintzeko.

ETI ikerketa bulegoak eginen du ikerketa fasearen obra koordinazioa. Berak finkatuko du material mota, kokapena, inbertsioaren kostua, funtzionamendu kostua eta enpresei deialdia egiteko txostena eginen. Ekintza hau bost ardatz nagusitan oinarritzen da:

- Oinezkoen ibilbideak parke barnean,
- arbolen argizatzea,
- parkearen gibeletako aparkalekuaren argiteria,
- Edmond Rostand hiribidearen eta Lorezainen karrikaren artea lotura egiten duen oinezkoen bidexka, San Josepe etxetik pasatuz,
- Lorezainen karrikako linternen aldatzea.

Argiteria sareek, eta argizatze materialaren kokapenak dituzte lan hauek baldintzatzen. Lan hauen kostua ZK 81 500 €tan aurreikusten da.

2018ko apirilaren 10ean deialdi publiko bat argitaratu da, prozedura egokituaren, eskaintza 2018ko maiatzaren 3ko eguerdian berantetik aurkezteko epearekin. MAPA batzordea 2018ko maiatzaren 3an bildu da 14:00etan, eskaintzak irekitzeko, eta maiatzaren 31an eskaintzen analisia txostenarentzat.

Azken bilkura horren ondotik, MAPA batzordeak Herriko Biltzarrari proposatzen dio merkatua eskaintza merkeena egin duen enpresari esleitzea, deialdiko araudiaren arabera, hots LACIS SAS enpresa 78 879 €ko aurrekontu batentzat ZK.

Hiriart-Urruty andereak galdetzen du ea presentzia-detektagailuak ezarriko diren.

Bardin jaunak baietz. Horrelako sistema San Josepe parketik Lorezainen karrikaraino izanen da; parkeko beste eremuei buruzko informaziorik ez duenez, berantago erantzunen dio.

Hiriart-Urruty andereak galdetzen du ea bidexka guzti horiek argizatzea beharrezkoa zenez, eta zertarako herriak zuhaitzak argizatzen dituen.

Auzapez andereak ihardeste dio bizpahiru zuhaitzetan soilik spot moduko argi bat ezarriko dela. Ez da Herriko Etxe aitzinean bezala lurretik argizatuko. Argi horiek ezartzea deliberatu zuten leku ilunak argizatuzeko.

Hiriart-Urruty andereak galdegiten du ea spot horiek gau osoan pizturik egonen diren.

Auzapez andereak ezetz. Spot horiek karriketako argiteria bezala piztu eta itzaliko dira.

Bardin jaunak gehitzen du herri erdia eremu urdinean dela eta aparkalekua San Josepe parkearen gibelean dela. Iraila hondarrearantzeko 7 edo 8ak aldera iluntzen hasiko du. Herri erdiko parke hori argizatuz lekua seguruago izanen da gauez.

Hiriart-Urruty andereak galdetzen du nork erabiltzen ote duen parkeko aparkalekua arratseko 8etatik aitzina.

Lespade andereak ihardesten dio merkatariak aparkaleku hori erabiltzen dutela eremu urdina indarrean ezarri denetik.

Auzapez andereak gehitzen du ez dela gehiegikerietan aritu behar. Neguan goizik iluntzen du, eta herriak San Josepe parke gibleko aparkalekua erabilia izan dadin nahi du. Alta, saltzaileek eta beste erabiltzaileek diote ilunegia denez ez dutela erabiltzen. Eransten du argizatze hori ez dela luxuzkoa, bai ordea pertsonen segurtasuna bermatzeko argizatzea. Aparkalekura daraman bidexka nagusia, Lorezainen hiribiderakoa, sartzeko bidexka nagusia eta komunetarakoa ere argituak izanen dira.

Aïçaguerre andereak ohartarazten du bidexka nagusitik 5 metrora badela pasabide bat, lehengo taxien aparkalekutik jendarmeriara doana, eta argizatua dela. Jendarmerian badira bi spot handi aparkalekua argitzen dutenak. Gehiegizkoa deritzo 90 000 € argizatze lanetan ezartzeari.

Bardin jaunak ihardesten dio hori bere iritzia dela eta ez dela gehiengoarena. Egitasmo hau gehiengoaren programan zegoela ere gehitzen du. Pertsona batek eraso bat jasan gabe hobe da prebentzioa egitea.

Lespade andereak gehitzen du parkea hain guti dela argitua non gauez droga trafikoa egiten den batzuetan.

Bacardatz jaunak ohartarazten du planoen arabera animazio aretoarekin kokapen arazo bat egon daitekeela. Izan ere, aretoaren lekuaren erdian hodi malgu bat ezarria izan denez enpresak abisatu beharko dira, planoak ongi begizta ditzaten.

Hiriart-Urruty andereak zehazten du berak kontra bozkatuko duela, Auzapez andereak erran duen bezala diru hautuak egin behar baitira. Bere ustez parke horren argizatze osoa ez zen lehentasun bat. Hobe zitekeen inguruko auzoetan jokoak ezartzea, hain zuzen bikote gazteak haurrekin bizi diren lekuetan.

Devèze jaunak gehitzen du Kanbo erdian izanik, parke horrek argizatzea merezi zuela. Bere ustez ez da gehiegizkoa 80 000 € horretan ezartzea. Parke hori argizatzea, funtzionamendu tenore zehatzekin, zentzuzkoa da.

Auzapez andereak zehazten du hautu kontu bat dela, baina herritarrek aspaldian eskatzen dutela parke hori argizatzea. Pena du proiektua ez baita iaz egin, baina orain kontent da azkenean eginen baita.

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre eta Amaia Beyrie.

Bardin jaunak zehazten du proiektu horrentzat herriak %41eko dirulaguntza bat ukanen duela.

6 – 2018/2019 – 2019/2020 eskola garraioak: zerbitzu emailearen izendapena.

Noblia andereak oroitarazten du 2015eko maiatzaren 25ko erabakiz Pirinio Atlantikoetako Departamenduak, Lehen Mailako Aginte Antolatzaile gisa (1.AA/AO1) Kanboko herriari delegazioa eman ziola eskola garraioetako zerbitzua bere kontura antolatzeko "Bigaren Mailako Aginte Antolatzaile (2.AA/AO2)" gisa. Delegazioa urte beterako emana zion beste urte batez luzatzeko ahalarekin, hots 2017ko ikasturte bukaera arte.

2017ko ekainaren 19ko Herriko Biltzarrak Akitania Berria Eskualdeak eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduak eskola garraioen zerbitzua 2017/2018 ikasturtean 2.AA gisa segitzeko egin zioten proposamena onetsi zuen.

Eskola garraioen alorrean, garraioen kodeko L. 3111-9 artikuluko xedapen berezien arabera, Eskualdeak bere eskumen osoa edo zati bat Departamenduaren, herrien, herri elkargoen, sindikata misto edo partzuergoen, ikastetxeen zein ikasle edo familia elkarteen esku ezar dezake. 2018ko urtarrilaren 25eko mezu elektroniko batek Herriari jakitera ematen zion 2018ko sartzetik goiti Ipar Euskal Herria-Aturri Mugikortasunen Sindikata bilakatzen zela Lehen Mailako Aginte Antolatzaile, eskola garraioen antolatzeke.

2018ko martxoaren 12ko erabaki batekin, Herriko Biltzarrak:

- onetsi zuen 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetarako 2.AA gisa segitzea,
- baimena ematen dio Auzapez andereari Ipar Euskal Herria-Aturri Mugikortasunen Sindikatarekin hitzarmena izenpetzeko
- baimena ematen dio Auzapez andereari eskola garraio zerbitzuaren delegazioa 2.AA gisa bermatzeko, honako bi moduetan:
 - o 2.AA gisa, berak zuzenean zerbitzua eskainiz,
 - o eskola garraioentzako zerbitzu eskaintza merkatu bat izenpetuz.

Horretarako, 2018ko apirilaren 20an Herriak deialdi publikoa bideratu zuen, prozedura egokituan, 2.AA gisa delegatutako eskola garraioen zerbitzu eskaintzentzat 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetarako, Lehen Mailako Aginte Antolatzaile den Ipar Euskal Herria-Aturri Mugikortasunen Sindikataren eskumen pean, honako bi ibilbideentzat:

- Kanbo barneko ibilbidea
- ASSANTZABORDA ibilbidea

eskaintzak 2018ko maiatzaren 23ko eguerdi aitzin eman behar ziren.

MAPA batzordea 2018ko maiatzaren 23an bildu zen, 14:30etan, eskaintzak irekitzeko. Bi eskaintza baizik ez ziren:

- o TRANSDEV SUD OUEST Donibane Lohizunen, 144 550,36 € ZK
- o S.A.R.L. - AUTOCARS MIRAL Kanbon, 97 480 € ZK

Ipar Euskal Herria-Aturri Mugikortasunen Sindikatak txostena ikertzea eskatu baitzuen, txosten hori helarazi diogu. Eskaintzen analisia txostena 2018ko maiatzaren 31an aurkeztu zen MAPA batzordean. Bilkura horren ondorioz, MAPA batzordeak Herriko Biltzarrari proposatzen dio merkatua eskaintza merkeena egin duen enpresari esleitzea, deialdiko araudiaren arabera, hots Autocars Miral enpresa 97 480 €ko aurrekontu batentzat.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Aho batez onartua, jakinez Lespade andereak ez duela bozkan parte hartu.

7 – Veber margo oihalen zaharberritzea: Kulturaren Eskualdeko Zuzendaritzaren (KEZ/DRAC) diruztatze planaren onarpena.

Auzapez andereak oroitarazten du 2018ko martxoaren 12ko Herriko Biltzarrak HULOT taldea izendatu zuela Jean VEBER-en margolanak kontserbatu eta zaharberritzeko. Margolan hauek, "Contes de fées" izenburukoak, PERRAULT-en Ipuinak irudikatzen zituzten, eta zaharberritzearen ondotik Arnaga etxeko Rosemonde ROSTAND-en saloi ttipian berriz ezarriko dira .

Hautagaiari jakinarazi zaio merkatu hau ZK 133 335 €ko kopuru batentzat esleitzen zaiola, jakinez lehenagotik, 2012an, 127 000 €ko aurrekontua eskaini zuela. Izan ere, hastapeneko eskaintzari, bereziki gain margotuak izan ziren lau margolanetan egin beharreko lanak gehitzen zaizkie, hots 6 335 € ZK.

Gastu horri gehitu behar zaizkio 2017an Jean-François HULOT-ek obra batzuen gainean eginiko ikerketa sakonagoa ZK 15 000 €ren truke.

Akitania-Berriko KEZ-aren adostasunarekin, Herriak ekintza hau 2018-2019rako planifikatu du. 2016ko apirilaren 6ko erabaki batean, Akitania-Berriko KEZ-ak 50 800 €ko laguntza bat bozkatu zuen.

Gainera, 2018ko urtarrilaren 29an, Herriak Akitania-Berriko KEZ-ari laguntza gehigarri bat galdegin zion, margolan horientzat: 21 335 € ZK.

Orain, Akitania-Berriko KEZ-ak aurkeztu duen diruztatze proiektua onartu behar dugu:

- | | |
|---|----------|
| - Dirulaguntza jaso dezaketan lanen zenbatekoa: | 21 335 € |
| - Frantses estatuaren dirulaguntza (%40): | 8 534 € |
| - Herriaren parte hartzea BEZ-a barne: | 17 068 € |

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Aho batez onartua.

8 – San Laurendi elizako lanak: KEZ-aren diruztatze planaren onarpena.

Magis jaunak azaltzen du 2016an Herriak frantses estatuaren laguntza eskatu zuela San Laurendi Diacre eliza zaharberritu eta balioan ezartzeko. Hastapeneko aurrekontua (obra koordinatzailearen gastuak barne) ZK 1 081 171 €-tan estimatu zuen Catherine MATVEIEFF andereak, bera izan baitzen 2017- 2019 aldirako obra koordinatzaile izendatu.

2017ko azaroaren 27ko delibero batean, Herriko Biltzarrak 2017ko abenduaren 18an hasi ziren ezquila dorreko lanak egiteko enpresak izendatu zituen. Obren zenbatekoa ZK 200 000 €-tan neurtu zen eta 2017ko maiatzean KEZ-ak herriari 80 000 €ko laguntza onartu zion.

2018ko urtarrilaren 31ko gutun batean Herriak beste dirulaguntza bat eskatzen zuen lanen bigarren zatiarentzat: nabe eta nabe ondokoaren kanpoko konponketak ZK 300 000€-ko zenbateko batekin (obrak eta koordinazioa).

Orain, Akitania-Berriko KEZ-ak aurkeztu duen diruztatze proiektua onartu behar dugu:

- | | |
|---|-----------|
| - Dirulaguntza jaso dezaketan lanen zenbatekoa: | 300 000 € |
| - Frantses estatuaren dirulaguntza (%40): | 120 000 € |
| - Herriaren parte hartzea BEZ-a barne: | 240 000 € |

Bestalde, Magis jaunak lanen egutegia ematen du:

- 2018ko ekaina: lehen fasearen bukaera,
- 2018ko irailetik 2019ko otsailera: bigarren fasea,
- 2019ko martxoa: martxoaren 11tik 15era, amianto kentzea,

- 2019ko irailetik 2020ko apirilera (apirila barne): hirugarren fasea,
- Azken fase honetan elizan ez da kontzerturik emanen,
- 2020ko urtarriletik apirilera ez da elizkizunik ospatuko.

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Aho batez onartua.

9 – Herriko bide baten erregularizazioa eta desklasifikazioa, eta lur sailen trukatzea.

Bardin jaunak Herriko Biltzarrari proposatzen dio Herria eta Larrenduche anderearen arteko lur trukaketa bat erregularizatzea, diru trukerik gabe. Larrenduche anderearen lurak Lurbinttoenbordako bidean (VC 79) eta Mendixola biribilgunean kokatuak dira.

2011ko azaroaren 14ko eta 2012ko martxoaren 26ko erabaki batzuen bidez lur sailen trukatzea onetsi zen, baina trukatze horien egiaztatzeko agiri ofizialak ez ziren egin. 2011ko abenduaren 26tik 2012ko urtarrilaren 10a artean inkesta publikoa egin zen eta oharririk egin ez baitzen inkesta komisarioak oniritzia eman zuen.

Biltzarrari proposatzen dio egoera erregularizatzea. Herriko Biltzarraren delibero berri bat beharrezkoa da ezen garai hartako geometroaren planoak doi bat aldatu baitira eta ezinbestekoa da azalera berriak kontuan hartzea.

Plano berriak adierazten du sail batzuk eremu publikora pasako direla. Trukaketa dirurik gabe egingen da eta geometro gastuak erdizka partekatuko dituzte herriak eta Larrenduche andereak. Akta gastuak Larrenduche anderearen esku izanen dira.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Aho batez onartua.

10 – AVAP: herriko hautetsien izendapena.

Auzapez andereak oroitarazten du 2017ko urtarrilaren 1etik Euskal Hirigune Elkargoak duela hirigintza eskumena.

Hori dela-eta, eta frantses hirigintza kodeko L153-9 artikulua arabera, orduetik Elkargoak Herriaren eskumen guztiak hartzen ditu eta bere ordeztu jarduten du, eskumena hartu aurretik erabaki ziren THP (PLU), herriko mapak eta hirigintza dokumentuak bere eginez.

Bestalde, Sortze, Arkitektura eta Ondare askatasunari buruzko 2016ko uztailaren 7ko CAP deituriko frantses legeak Ondare eta Hirigintza Kodeak nabarmen aldatu ditu. 2017ko martxoaren 27ko dekretu batek termino batzuk zehazten ditu.

- Honela, 2017ko uztailaren 8tik sortu ziren ZPPAUP, AVAP eta PSMV perimetroak automatikoki Ondare Aipagarriko Sektore (OAS/SPR), THP-etan erabilgarritasun publikoko eskubideak sortuz,
- Gainera, CAP legek 114 II artikulua hauxe dio: "lege hau argitaratu aitzin ikertzen hasi ziren AVAP proiektuak ondare kodeko L.642-1 eta L.642-10 arteko artikuluen arabera aztertuko dira,

hauek lehengo legean idatziak ziren bezala". Ondorioz, herriek bideratu zituzten prozedurek beren bidea segi dezakete, ez herrien ardurapean baina HELEP-enean,

- ZPPAUP eta AVAP-ak Arkitektura eta Ondarearen Balioztatze Plan (AOBP/PVAP) bilakatuko dira, berrikuspen baten karietara edo borondate politiko berri bat gertatzen bada,
- Ondarea babesteko prozedura agindu berri ororentzat OAS sailkapen bat egin beharko da eta AOBP edo PSMV kudeaketa modu bat hautatu beharko da.

Bestalde, frantses Ondarearen Kodeko L.642-1 artikulua, Grenelle 2010 legeak aldatua, zehazten du Arkitektura eta Ondarea Balioztatze Eremua (AOBE/AVAP) sor dezaketela herri bat edo gehiagok edo HELEP batek horretarako eskumena dutelarik, baldin eta lurraldeak edo lurraldeek kultur, arkitektura, hirigintza, paisaia, historia edo arkeologia interes bat dutelarik.

Beraz, Euskal Elkargoa HELEP gisa THP alorreko eskumena duenez, berez eskubidea du OAS sailkapen bat eskatzeko eta PSMV, AVAP eta PVAP sortu eta/edo egokitzeko.

2014ko uztailaren 21eko erabaki batean KANBO-ko Herria AVAP urraspide batean sartu zen. Horrek herri erdiaren ondarearen babesa azkartuko du, ingurumen ikuspegi sakonago batekin baita garapen iraunkorreko ikuspegi batekin.

Bide horretatik segitzeko interesa ikusirik, eta "ALUR", "Egalité et Citoyenneté" eta "Création, Architecture et Patrimoine", legeak segituz, Euskal Elkargoak prozedura hori eta AVAP urraspidea segi ditzala askatzen du Herriak.

CAP legean eta 2017ko martxoaren 27ko dekretuan oinarrituz, Tokiko AVAP Batzordeko kideen zerrenda eguneratzea proposatzen du, ezen batzorde horren osaketa ere aldatu baita (Ondare Kodeko D.631-5 artikulua).

Ondorioz, Euskal Hirigune Elkargoa izanen da CLAVAP batzordearen buru.

CLAVAP batzordeak eskubide osoko ideak hartuko ditu:

- Batzordearen presidentea,
- Auzapeza,
- Departamenduko Prefeta,
- Kultura Gaietarako Eskualdeko Zuzendaria,
- Frantziako Eraikinen Arkitektoa

baita gehienez beste hamabost kide honela banatuak:

- Heren bat ordezkari, herriko biltzarrak bere kideen artetik izendatuak edo, hala balitz, HELEParen organo erabakitzaileko kideen artetik izendatuak,
- Heren bat ordezkari, HELEPak izendatuak, ondarearen geriza, sustapena eta balioztatzea xede duten elkarrekin,
- Heren bat ordezkari, HELEPak izendatuak, pertsona adituen artean.

AVAP urraspidearen jarraikortasunaren alde egiteko, Herriak proposatzen du CLAVAP-ak orain batzorde horretako kide direnak atxiki ditzala.

Egokia deritzo Euskal Elkargoa Kanboko CLAVAP-eko zortzi hautetsien kolegioan ordezkaria izateari, gutienez elkargoko bi ordezkarekin.

Auzapez andereak oroitarazten du nor diren AVAP batzordeko kide orain: Vincent Bru, Frédéric Bardin, Eiane Aizpuru, Peio Etchelecu, Jean-Noël Magis, Bernadette Jougleux, Patrice Dor, Argitxu Hiriart-Urruty.

Elkargoko hautetsien izendatzeko Auzapez anderea eta Mialocq anderea aurkezten dira.

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Aho batez onartua.

Herriko hautetsien izendatzeari buruz, Auzapez andereak hautagairik ba ote den galdetzen du.

Beren burua aurkeztu dute: Frédéric Bardin, Eiane Aizpuru, Peio Etchelecu, Jean-Noël Magis, Patrice Dor eta Argitxu Hiriart-Urruty.

Herriko Biltzarkide guztiek onaturik, Auzapez andereak eskuak altxatuz bozkatzea proposatzen du.

Aho batez onartua.

Aïçaguerre andereak ongi ulertu du Euskal Elkargoak hartuko duela AVAP lanen segida, baina 2014ko herriko bozkatik abiatu lanak zertan diren galdetzen du.

Bardin jaunak ihardesten dio bulego berezitu batek ikerketa abiatu duela, baina bertan behera gelditu behar izan dela eskumena Euskal Elkargora pasatzearekin. Eskumen aldaketa burutua izanen delarik AVAP batzordearen bilkura bat egingen da.

Hiriart-Urruty andereak oroitarazten du 73 840 € ezarri zirela AVAP-aren aurrekontuan. Gaur egun arte herriak zenbat ordaindu duen jakin nahi du.

Bardin jaunak ihardesten dio elementu horiek ez dituela, baina asteazkeneko hirigintza batzordeko bilkuran emango dizkiola hirigintza zerbitzuarekin aipatu eta gero. Ikerketa bulegoa ordaindua izan da 2016ko abenduaren 31 arte egin dituen lanentzat.

Hiriart-Urruty andereak galdetzen du ea herriak KEZ-ari galdegin 36 000 €-ko dirulaguntza eskuratu ote duen.

Bardin jaunak erantzuten dio gai hau solasgaietan ez zenez ezin diola erantzunik eman, baina zerbitzuei galdegin eta arrapostua emanen diola.

Devèze jaunak gehitzen du eskuz aldatze bat egiten den bakoitzean, urtarrilaren 1a aitzin egin diren gastuak eta eskuratu diren dirulaguntza Euskal Elkargoaren kontuetan sartzen direla sartze eta gastuen ataletan. Dagoeneko, Euskal Elkargoak segituko du AVAP-aren gaia eta berak segituko ditu ere bi atal hauek. 2014ean ez zen erabaki berezirik hartu, helburua batzordeak osatzea baitzen.

Hiriart-Urruty andereak zehazten du AVAP-ari buruzko bozka THP-aren bozkarekin batera egin zela 2014ko uztailean. Galdetzen du AVAP-ak zenbat lan egin duen, « gutienez %80, edo gutiago, edo gehiago, eta gauza guti».

Bardin jaunak ihardesten dio elementuak izanen dituelarik erantzunen diola. Axe & Site bulegoak landu zuen gai hau. Zortzi bilkura inguru egin ziren. Bulegoak egin zituen 2016ko abenduaren 31 arteko fakturak ordainduak izan dira, eta 2017tik ez da bilkurarik izan.

Aïçaguerre andereak Herriak KEZ (DRAC)etik 27 000 edo 28 000 € ko dirulaguntza eskuratu zuela eta 2017ko kontuetan sartu zirela.

Bardin jaunak arrapostu hau emateagatik eskertzen du, eta ez du ulertzen beraz zergatik galdera egin duen erantzuna ezagutzen baitzuen.

11 – Dirulaguntzak.

Lespade andereak Herriko Biltzarrari proposatzen dio elkarte batzuen aldeko hiru dirulaguntza gehigarri buruzko bozka egitea, 2018 urterako:

- Alliance 64 beren etxeetan edo egoitzetan dauden eritasun larriak dituzten pertsoneri eta beren familiei laguntza eskaintzen dien elkarteak: 180 €
- Gauargi mundu osoko haur eta dantza nazioarteko festibala, 2018ko uztailaren 18tik 24era Ezpeletan iraganen dena: 500 €.
- Kanbo gaineko besta komitea, 2018ko besten kariatara eguneko animazioak egiteko: 6 000 €.

Aiçaguerre andereak galdetzen du ea dirulanguntzak onartzeko baldintzak aldatu diren, ezen iragan Herriko Biltzarrean Emaitzari ez zitzaion dirulaguntzarik onartu txostena ez baitzen osoa. Alta, dirulaguntza eskaeren txostena kontsultatu du eta Gauargirentzat ez du eskaerarik atxeman. Bere taldea dirulaguntza horren alde da, baina eskaera txostenik ez bada koherente jokatu behar da.

Auzapez andereak ihardesten dio txostena biziki berant iritsi dela. Izatez, orain egun guti elkartu zen antolatzaileekin. Festibala aurkeztu diote eta Auzapez anderearen iritziz herriak lagundu zezakeen. Eskaera egun iritsi da Herriko Etxera eta bistan da kontsulta daitekeela.

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Aho batez onartua.

12 – Bilgunea: 2018ko urtarrilaren 1eko tarifak.

Noblia andereak oroitarazten du 2018ko otsailaren 27ko erabaki batean Herriko Biltzarrak 2018ko urtarrilaren 1etik indarrean izanen diren Bilguneako (ALSH) tarifak finkatu zituela.

FaLK-ak (CAF) Denbora Librerako Laguntza eskuratzeko balditzetan aldaketak egin baititu, bereziki 650€ familia koefizientetik beherakoentzat, haurra egun erdiz egoten delarik bazkaria hartzen duenaren arabera, gure 2018ko urtarrilaren 1eko tarifetan FaLK-aren 1. mailari dagokiona aldatu behar dugu.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Aho batez onartua.

13 – Egonaldi zerga: 2019ko urtarrilaren 1eko tarifa.

Irastorza jaunak biltzarkideei azaltzen die egonaldi zergaren eta 2019ko egonaldi zerga finkoaren mugak eguneratu direnetik, Herriko Biltzarrak honako tarifei buruzko erabakia hartu behar duela:

KATEGORIAK	Tarifa proposamena 2019ko urtarrilaren 1ean
4 izarreko hotel, erresidentzia eta etxebizitza ekipatuak.	1.70
3 izarreko hotel, erresidentzia eta etxebizitza ekipatuak.	1.10

2 izarreko hotel, erresidentzia eta etxebizitza ekipatuak, eta 4 eta 5 izarreko oporraldi herrixkak.	0.90
Izar leko hotel, erresidentzia eta etxebizitza ekipatuak, eta 1, 2 eta 3 izarreko oporraldi herrixkak, landa etxeak.	0.70
3, 4 eta 5 izarreko kanping eta karabana zelaiak, antzeko beste edozein ostatatze zelai, camping-car eremuak eta aparkaleku turistikoak 24 oreneko zatika.	0.60
1 eta 2 izarreko kanping eta karabana zelaiak, antzeko beste edozein ostatatze zelai,, kirol portuak.	0.20
Sailkatua ez den edo sailkatzekotan den lo egiteko leku oro, kanpokoak izan ezik.	%2 (1)

(1) Sailkatuak ez diren lekuentzako zerga gehiago bada, baina tasa bakarra. Tasa hau pertsona bakoitzaren gaualdiko prezioari aplikatuko zaio, herriak finkatu duen tarifa gorenaren mugaraino, hots 1,70 €.

Irastorza jaunak zehazten du frantses Estatuak ez duela gehiago sailkatu gabeko lekurik nahi, turismoan kalitatea nahi duelako. Jakin behar da sailkapen batekin jabeak alokairuen errentatik %71 ken dezakeela. Ez da guti, jakinez sailkapen baten prezioa 144 €-koa dela 5 urterako, hots, 28 € urtean.

Devèze jaunak zehazten du %71ko beherapen gehigarri hori, lur funtsen aitortpena egiten dutenek ukan dezaketela, "micro-foncier" sailean, baldin eta beren alokairu errentek ez badute 15 000 € gainditzen.

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Aho batez onartua.

14 – Liburu azoka: tarifak.

Auzapez andereak adierazten du Edmond Rostand-en sortzearen 150. eta bere heriotzaren 100. urtemugen karietara, ospakizun berezia eginen dela Frantses Akademiaren goi laguntzarekin. Larrazkenean Aranagan lehen aldikotz Liburu Azoka bat eginen da, « Arnaga, liburuen lorategia » izenekoa.

2018ko buruilaren 16an igandearekin, argitaletxe, idazle, literatura elkarte eta beste hainbeste inguratuko da Arnagara. Ospe handiko idazle zenbait babesle izanik, azoka Edmond Rostand-en euskal etxeko lorategian antolatuko da (aterpean).

Erakusketariak luzera metro bakoitzeko 8 € ordainduko dute. Herriko Biltzarrak tarifa horri buruz bere iritzia eman behar du.

Aïçaguerre andereak galdetzen du nor izanen diren ekitaldiaren bi idazle babesleak.

Auzapez andereak ihardesten dio dagoeneko herriak Caroline de Margerie-ren baiezkua ukan duela. Berak idatzi zuen « Edmond Rostand ou le baiser de la gloire », eta bigarren idazlearen erantzunaren zain daude.

Hiriart-Urruty andereak galdetzen du nor gomitatua izanen den liburu azoka horretara eta ea euskarazko libururik izanen ote den.

Auzapez andereak bistan dena liburu azoka elebiduna izanen dela eta liburuak euskaraz eta frantsesez izanen direla. Erakusketariak literatura zaleak izanen dira, liburuzainak, idazleak. Azoka horren antolatzeke holako azokak antolatzeera ohitua den emazte baten laguntza ukanen du herriak.

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Aho batez onartua.

15 – Hilerriko hilobien salneurriak.

Auzapez andereak oroitarazten du 2017ko otsailean hiru hilobi bikoitz ezartzeaz esperimintatu zutela. Hilobi horiek gaineratik irekitzen dira eta hilkutxak lurtean sartzeko zedarritu ziren lekuetan ezarri zituzten.

Esperimintazioa baikorra izan denez, (hilobien mugen errespetua, estankotasuna, egokitzapen estetikoak, herria eta familientzako kostua), hiru hilobi bikoitz berri ezarri dituzte maiatzean (26 lerroko 2.a, 40 lerroko 31 eta 32.ak).

Orain Herriko Biltzarrak hilobi berri horien prezioa finkatu behar du eskaera izanez gero saldu ahal izateko.

Bakoitzak kostatzen duenaren arabera, 2 115 €tan finkatzeaz proposatzen du.

Informazio gisa, lehengo teknikarekin eskaintzen ziren hilobi bikoitzen prezioa 2 550 €koa zen.

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Aho batez onartua.

16 – Jantegi: hitzarmena Bilguneak lokal horiek erabili ahal izateko eskolako oportetan.

Nobliak jakitera ematen du Kanboko herriak Jantegi-ko lokalak erabiltzen dituela larrak, negu eta udaberriko oportetan hurrek eta animatzaileek bazkaltzeko. Bazkariak SCOLAREST bazkari prestatzaileak egiten ditu. Mantenua herriko langileek egiten dute.

Herriko Biltzarrari eskatzen zaio Auzapez andereari hitzarmena izenpetzeko baimena eman diezaion.

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Aho batez onartua.

17 – Hitzarmena « Laugarren Begia » elkartearekin.

Irastorza jaunak adierazten du Herriko Biltzarrak Auzapez andereari « Laugarren Begia » elkartearekin zerbitzu eskaintza hitzarmena izenpetzeko baimena ematea proposatzen duela. Hona zein izanen den elkarte horren zeregina:

- Kanboko herriak antolatuko dituen ekitaldien argazkiak egitea,
- Fitxategiak herriko "komunikazio" zerbitzura igortzea, fototeka baten osatzeko.

Bacardatz jaunak ohartarazten du hitzarmenean argazkien jabegoa eta herriak argazki horien erabiltzeko dukeen eskubidea ez direla zehazten.

Irastorza jaunak arrazoi duela ihardesten dio. Gai hori ahoz aipatu dute baina ez da idatzia izan.

Aiçaguerre anderearen aburuz, ekimen biziki baikorra da, baina galdetzen du ea ekitaldien kopuruak 1 800 € balio ote duen. Zerbitzu bakoitzeko prezio bat ez ote da hobe? Kopuru finko horrek ez du segurtasunik ez herriarentzat ezta elkartearentzat ere.

Irastorza jaunak ihardesten dio hitzarmena elkartearekin adostasunean idatzi dela. Kopuru finkoaren alde egin dute administrazio lanak errazteko. Honela ekitaldi bakoitzean ez diote hitzarmenari emendakinik ezta fakturarik egin behar. Argazkilari batzuei galdegin diete eta holako zerbitzu bat askoz garestiago fakturazten dute.

Devèze jaunak gehitzen du hitzarmena urte beterako izenpetuko dutela, esperimentazio gisa.

Aiçaguerre andereak lehen urtearen hondarrean bilan bat egitea eskatzen du eta horren ondorioak jakinaraztea.

Auzapez andereak bozkara ematen du eta zehazten du Bacardatz jaunaren oharrak kontuan hartuko dituela.

Aho batez onartua.

Hiriart-Urruty andereak komunikazioari buruzko gai hau baliatzen du gertatu zaion gauza bat aipatzeko. Hain zuzen, Arnagan museoan gualdia ospatu zenean bera han zegoen eta pertsona bat ezagutu zuen, alegia, herriak facebook, instagram, twitter eta bestelakoetan komunikazioa egiteko kontratatu duen pertsona. Bere taldea harrিতua da, kontratazio hori ez baita Herriko Biltzarrean aipatu.

Irastorza jaunak erantzuten dio pertsona hori lan-utzialdian den langilea ordezkatzeko kontratatu zela.

Hiriart-Urruty andereak ezetz. komunikazio alorreko argazkilari profesionala da.

Irastorza jaunak galdetzen dio ea pertsona horrek bere burua herriko langile bezala aurkeztu duenez.

Aiçaguerre andereak galdegin zion turismo bulegoak kontratatu ote zuen, eta Labat andereak aurkeztu zuen pertsona hau Arnagako facebook-en arduradun gisa. Ez da Arnagako langile, bere lanak fakturatu behar ditu.

Auzapez andereak galdetzen du ea pertsona horren izena ba ote duten.

Hiriart-Urruty andereak dio ez duela izena gogoan atxiki, uste baitzuen herriak pertsona hau ezagutzen zuela.

Aiçaguerre anderea harrিতua da « gehiengoak ez dakiela Arnagan facebook, twitter eta instagram orriak badirela. Arnaga herriarena da.»

Auzapez andereak ezetz.

Hiriart-Urruty andereak Auzapez andereari iradokitzen dio Labat andereari argibideak eskatzea, berak aurkeztu baitzuen pertsona hura.

Auzapez andereak gai hori argituko duela.

18 – Eremu publikoa okupatzeko hitzarmena.

Auzapez andereak Herriko Biltzarrari proposatzen dio « Les Attelages d'Horace » elkartearekin hitzarmen bat izenpetzeko baimena ematea, bi zaldiko zalgurdi batekin ibilaldiak egiteko 2018ko ekainaren 9tik agorrrilaren 31ra (ekaineko asteburuetan eta udako bi hilabeteetan astearte eta ostiral arratsaldetan. Gizon horrek Kanboko bisita gidatuak egitea proposatzen du. Bi ibilbide proposatzen ditu. Lehena San Josepe parketik Elizara, trinketeko karrikatik, terrazen karrikatik, elizako plazatik eta parkera itzuli. Bigarrena San Josepe parketik musika kioskoraino. Hitzarmena urte betekoa izanen da eta bukaeran bilan bat egingen da. Auzapez andereak zehazten du zaldi gorotzak bilduko direla, ez dira lurlean egonen.

Hiriart-Urruty andereak hitzarmenaren 2. artikuluz xehetasunak eskatzen ditu: « zalgurdia soilik behin-behineko ibilgailuentzako pasabidetik joanen da ».

Auzapez andereak zehazten dio ibilgailuak San Josepe parkera sartzen direnean ez dutela edozein ibilbide segitu behar. Ordokirainoko ibilbide nagusia segitu behar dute, hots asteazkenetan hatu-merkatua egiten den lekurainokoa. Normalean ibilgailuak ez dira denetan ibiltzen.

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Gehiengoz onartua. Kontra bozkatu dute: Argitxu Hiriart-Urruty eta Nathalie Aiçaguerre.

Mugikortasunaren gaia dela-eta, Hiriart-Urruty andereak dio iragan larunbatean, ingurumenaren egunaren kariatara, bizikletak alokatzen dituen pertsona bat ikusi duela. Ideia interesgarria da eta galdetzen du ea herriak pertsona hori lagunduko ote duen jarduera hori ezartzeko.

Auzapez andereak erantzuten dio Basko Velos enpresarekin elkartu dela, eta berak proposatu ziola ingurumenaren egunean baita Kanboko merkatarien karrika salmenta antolatu zelarik hor izatea. Beren bizikletak Sorhainde plazan ezarri zituzten. Auzapez anderea haiekin berriz elkartu behar da ekimena arrunt interesgarria baitzaio. Aipatu zien ere, 200 €ko dirulaguntza bat ukan zezaketela, baldintza batzuk betez, bizikleta elektrikoa erosi nahi zuten jendeek. Auzapez anderea haiekin elkartuko da, beren bizikletak maizago erakutsi nahi dituztelako. Haurtzainen kokatuak dira, eta han ikusgarritasun guti dutenez lagundu nahi lituzke.

19 – Eskola garraioetako autobus geltokien segurtatzea.

a) Proiektuaren balioespena.

Noblia andereak oroitarazten du Kanboko herriak 2018-2019 ikasturterako eskola garraioen geldilekuen segurtatze lana segituko duela, ikasleen segurtasuna bermatzeko.

Ibilbideari buruz izan den bilkura batean segurtasuna bermatzeko beharrak azaldu ziren. Egoera horri aurre egiteko Herriak 2018ko apirilaren 12an, gutun bidez, Ipar Euskal Herria-Aturri Mugikortasunen Sindikatari AA1 gisa (Lehen Mailako Aginte Antolatzailea) dei egin zion Euskal Hirigune Elkargoaren lurraldean eskola garraioen eskumena duelako, baita Pirinio Atlantikoetako Departamenduari ere.

2018ko apirilaren 22ko mezu elektroniko baten bidez, Herriko zerbitzu eta hautetsiak, Akitania Berria Eskualdekoak, Ipar Euskal Herria-Aturri Mugikortasunen Sindikatekoak eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduak bilkura batera deituak izan ziren herriko autobusarekin egiten den kanpoko ibilbidea balioesteko alde batetik, eta autobus geldilekuen kokapen zehatza eta geldileku mota indarrean diren arau eta legeen arabera zehazteko bestetik, eta ooren buru ekintza horren kostua ezagutzeko.

Bilkura hura 2018ko maiatzaren 23an egin zen, asteazkenarekin, momentu horretan herriko autobusak egiten duen ibilbidea eginez. Honela, gidariak geldileku bakoitzean zenbat haur hartzen duen eta ikasleak hartzeko dituen zailtasunak azpimarratu ahal izan zituen.

Beraz, Ipar Euskal Herriko Mugikortasunen Sindikatak eman duen geldilekuen zerrendaren arabera eta ibilbidean zehar egin diren oharpenekin, lau geldileku departamenduko edo herriko errepideetan daude eta ez dira seinalatuak ezta babestuak ere ikasleak arriskurik gabe biltzeko. Zerrenda hau ez da osatua eta irailean eguneratu daiteke sindikatari eskaera eginez, baldin eta eskola garraioaren barne araudiko baldintzak betetzen badira, alegia:

- lekuaren berezitasun batek kontra egiten ez badu, jarraian diren bi geldilekuren arteko distantzia gutienez km lekoa izan behar da, eta gelditoki bakoitzean gutienez hiru ikasle egon behar dira,
- geldilekuak errepide nagusietan kokatuak dira. Errepide nagusitik kanpo zerbitzua eman daiteke soilik baldin eta ibilgailuaren maniobrak segurtasun osoan egin badaitezke (gibel ez egiteko beharrik), eta desbideratze horrek ibilbidearen iraupenean eragin handirik ez badu;
- geldilekuak behar bezala kokatu behar dira, ikasleen igotze eta jaisteak segurtasun osoan egiteko gisan.

RD 22 errepideko geldileku guztientzat, Herriak Departamenduari eskatu behar dio geldilekuak C6 antzeko zutoinekin adieraz ditzala.

« Varasalgo Pareta » geldilekuari dagokionez, Jatsuko bidean eta RD 22arekin gurutzatzen dena, Herriak Jatsuko herriari eskatu behar dio bere gain geldileku aterpe bat ezar dezala eta lurrian "zebra" moduko seinalea ezartzeko baimena eman diezaiola Kanboko herriari, eta azken honek bere gain hartuko luke.

Bestalde, herriko errepideetan diren geldilekuen seinale eta segurtasun lanak Herriaren gain izanen dira.

Herriko Biltzarrari proposatzen zaio:

- 2018-2019 ikasturterako herriko autobusak egin duen ibilbidea balioestea, Ipar Euskal Herriko Mugikortasunen Sindikatak proposatu duen bezala,
- antolamendu eta egokitzapen lanak, ZK 17 578 €-koak, onestea (geldileku bat aterpearekin eta hiru zebra).

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Aho batez onartua.

b) Polizia isunei loturiko laguntza.

Noblia andereak oroitarazten du frantses Estatuak urte guzietan poliziak eman dituen isunen (zirkulazioko isunak) zati bat esleitzen diela kolektibitateei. 10 000 biztanletik beherako herrietan, zuzkidura hori Departamenduari doakio, errepidearen erabiltzaileen segurtasuna hobetzeko inbertsioak egiteko: garraio publikoen irisgarritasuna, geldilekuen antolatzea, azpiegituren antolatzea eta segurtatzea.

Kanboko herriak, 2018-2019 ikasturte hastapenetik, eskola garraioen zerbitzuko autobus geldilekuak segurtatzeko lanak segituko ditu, ikasleen segurtasuna bermatzeko xedearekin.

2018ko apirilaren 12ko gutun batean, Herriak Pirinio Atlantikoetako Departamenduari polizia isunen kutxatik diru laguntza bat eskatu zion, herriko autobusak eskola garraio zerbitzuan egiten dituen geldileku batzuetan antolamendu eta segurtatze lanen egiteko.

2018ko maiatzaren 23an asteazkenarekin, Herriko, Akitania Berria Eskualdeko eta Ipar Euskal Herriko Mugikortasunen Sindikateko hautetsiak bilkura batean bildu ziren herriko autobusaren kanpoko eskola garraio ibilbidea balioesteko, baita lege eta arauen araberrako geldilekuen kokapena eta geldileku mota aipatzeko ere. Ekintza hori burutzeko ZK 16 578 €-ko aurrekontua helarazi genuen 2018ko ekainaren 1ean. Prezio horretan sartzen da Agnianeko bordan "sept chènes" deituriko geldilekuko aterpearen hornidura eta ezartzea.

Horretarako, Herriko Biltzarrak Auzapez andereari baimena ematea proposatzen dugu, Departamenduko Kontseiluari isunen kutxako diru laguntza eskatzeko.

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Aho batez onartua.

20 – Langileria.

a) Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroarekin ezinbesteko aurretiko bitartekaritza esperimeneziorako hitzarmena.

Auzapez andereak biltzarkideei azaltzen die Pirinio Atlantikoetako Lurraldeko Funtzio Publikoko Kudeaketa Zentroak ezinbesteko aurretiko bitartekaritza esperimenezioa eramane duela, XXI. mendeko justizia modernizatzeko 2016ko azaroaren 18ko frantses legeko 5 IV artikulua baimentzen duen bezala. Esperimenezioa 2020ko azaroa arte eramane da, Administrazio Auzitegira jo aitzin bitartekaritza fase bat ezartzeko.

Prozedura hori nahitaezkoa izane da honako administrazio erabaki indibidualentzat:

- 1983ko uztailaren 13ko frantses legeko 20. artikuluko lehen lerrokan aipatzen diren ordainsariko elementuetako bati buruzko administrazio erabaki indibidual ezkorak;
- 1988ko otsailaren 15eko dekretuko 15, 17, 18 eta 35-2 artikuluetan biltzen diren kanpo zerbitzaldi, lan-utzialdi eta sari gabeko oporraldiak ukatzen dituzten erabaki indibidualak;
- Kanpo zerbitzaldi, lan-utzialdi edo guraso oporraldi baten ondotik edo lehenagoko puntuan aipatzen den oporraldi baten ondotik kontratupeko langile bat berriz hartzeko erabaki indibidual ezkorak;
- Administrazioan graduz igo edo aitzinamendu baten ondotik lan esparruz aldatu-eta, langileari eman dakizkiokeen birkokapen erabaki indibidual ezkorak;
- Bizi osoan zehar lanbide formakuntzarako administrazio erabaki indibidual ezkorak;
- 1983ko uztailaren 13 frantses legeko 6. artikuluko seigarrenaren arabera enplegatzaile publikoek langile elbarritu bati begira hartu dituen neurriei buruzko administrazio erabaki indibidual ezkorak;
- 1985eko irailaren 30eko dekretuko 1. artikulua baldintzetan, funtzionarioak ezin baditu bere funtzioak bete eta lan baldintzen egokitzeari buruzko administrazio erabaki indibidual ezkorak.

Gatazken kudeatzeko modu alternatibo honek, legea eta administrazio printzipioak segituz, gatazka modu malguago, lasterrago eta merkeago batean konpontzeko aukera ematen du.

Kudeaketa Zentroko langile formatuak izanen dira bitartekari lana eginen dutenak, bitartekaritzaren honako printzipioak errespetatuz: independentzia, neutraltasuna, inpartzialitatea, konfidentzialtasuna.

Halere, urtesari gehigarrian sartua izanen den zerbitzu hau baliatu nahi duten kolektibitateek (kostu gehigarririk gabe), 2018ko irailaren 1a aitzin hartu behar dute erabakia.

Erabakiak ez du deusetara behartzen, baina gatazka bat gertatzen bada, auzitegiraino ez joateko aukera eman dezake, gatazka lasterrago eta luzerako konponduz.

Urraspide horrek dituen abantailak kontuan izanik,

Auzapez andereak bozkara ematen du biltzarrak hitzarmena izenpetzeko baimena eman diezaion.

Aho batez onartua.

b) Batzorde Teknikoaren eraberritzea.

Saint Jean jaunak biltzarkideei oroitarazten die gai honetan batzorde teknikoan zenbat langileriaren ordezkari izanen den erabaki behar dutela. Batzorde Teknikoa, Kanboko herrian ordezkari duena, kolektibitate eta establezimenduetako ordezkarien iritziak jaso eta erabakiak parekotasunean hartzeko gunea da.

2018an langileen ordezkarien artean Batzorde Teknikoan ordezkari izanen direnak bozkatuko dira. Gune iritzi emaile horrek, elkarriketa sozialaren tresna izanik, laneko ingurumenari buruzko iritziak ematen ditu. Bi kolegioz osatua da: langileen ordezkariena eta Administrazioaren ordezkariena.

Herriko Biltzarrari dagokio, araudiek finkatutako mugetan, kolektibitatearen Batzorde Teknikoan zenbat langileen ordezkari titular izanen den erabakitzea. Berak du erabaki behar ere bi kolegioen arteko parekotasuna mantentzen den ala ez. 2010eko uztailaren 5eko 2010-751 frantses legeak, elkarriketa sozialari buruzkoa, Batzorde Teknikoetan parekotasunaren beharra kendu zuen. Hortaz, Herriko Biltzarrak erabaki behar du parekotasuna atxikitzen duen ala ez.

Azkenik, Herriko Biltzarrak erabaki beharko du ere Batzorde Teknikoko bilkuretan Administrazioaren ordezkarien kolegioaren iritzia bilduko duen ala ez.

Kontuan izanik sindikatuak 2018ko apirilaren 12an kontsultatuak izan direla.

Kontuan izanik, 2018ko urtarrilaren 1ean langileen ordezkarien kopurua kalkulatzeko balio duen langileen kopurua 67koa zela, %52,24 gizonak eta %47,76 emazteak,

Kontuan izanik langileen ordezkari titularren kopurua hiru eta bost artekoa izan daitekeela,

Herriko Biltzarrari honakoa proposatzen dio:

- langileen ordezkarien kopurua hiru kidetan finkatzea, titular bakoitzak ordezkari bat izanik,
- parekotasuna atxikitzea, herriko ordezkariak langileen ordezkariak bezain bat izanez (titular bakoitzak ordezkari bat du),
- kolektibitateetako eta beren establezimenduetako ordezkarien iritzia jasotzea.

Aiçaguerre andereak galdetzen du ea GEUZeko langileak 67 langileetan kontuan hartu diren.

Saint-Jean jaunak ezetz. Herriko langileak bakarrik kontaktzen dira.

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Aho batez onartua.

c) Langile hauteskundeak: justiziara jotzeko gaitasuna.

Saint Jean jaunak honakoa azaltzen du: 2018an iraganen diren langileen ordezkarien hauteskundeak direla-eta, organo erabakitzaileak bere baimena eman behar dio lurralde aginteari kolektibitatea edo establezimendua ordezkatzeko jurisdikzio guztietan, baldin eta langile hauteskundeetan gatazkarik sortuko balitz, baita helegitean edo kasazioan ere, kolektibitatearen edo establezimenduaren kontrako salaketa baten kasuan. Abokatu baten laguntza eskatzeko baimena ere eskatzen dio.

Organo erabakitzaileak abokatuaren balizko gastuak bere gain hartzea ere aurreikusi behar du, baita bestelako prozedura gastuak ere.

Herriko Biltzarrari proposatzen dio Auzapez andereari baimena ematea:

- Defentsan auzitara jotzeko jurisdikzio guztietan, helegitea eta kasazioa barne, kolektibitatearen kontrako salaketa egingo balitz,
- Balizko abokatu eta prozedura gastuak aurrekontu nagusitik ordaintzeko.

Auzapez andereak Herriko Biltzarrari delegazio horren esparruan hartzera behartua izan den erabakien berri emanen dio.

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Aho batez onartua.

d) Enplegu sortzea.

Auzapez andereak oroitarazten du Frantz Candas jauna, udaltzaina, lan-utzialdian dela. Lan-utzialdia beste urte baterako luzatzea eskatu du. Herriak zailtasunak ditu urte bakar baterako formatua den udaltzain bat kontratatzeko. Udaltzain eskasia dela-eta, Herriko Biltzarrari proposatzen dio zaindari-brigadista postu bat sortzea 2018ko ekainaren 5etik aitzina, gero udaltzain bilakatzeko bidea errazteko. Postuarentzat deialdi bat eginen da.

Halaber, udaltzain zerbitzuan dauden beharrei aterabide bat emateko, Auzapez andereak ASVP bi postu sortzea proposatzen du, sei hilabeterako, maiatzetik urrira. Herriak udako langile bat hartu du 2018an. Uztailearen 2an hasiko da lanean. Bigarren ASVP postua herriko langile batek beteko du, osasun arrazoiengatik partzialki postua egokitu behar baitzaio.

Hiriart-Urruty andereak galdetzen du ea bi postu horiek uda honetarako sortuak diren.

Auzapez andereak ihardesten dio postu horiek aurtengo eta datozen urteetarako sortuko direla.

Hiriart-Urruty andereak galdetzen du zergatik bi postu sortzen diren orain arte ASVP bat baizik ez zelarik.

Auzapez andereak zehazten du oraingoan ez dagoela batere udaltzainik.

Hiriart-Urruty andereak galdetzen du zer gertatuko den herriak udaltzain bat kontratatuko duelarik.

Auzapez andereak denbora aski luzea behar dela udaltzain bat kontratatzeko. Bi ASVP horiek laster hasiko dira lanean.

Aiçaguerre andereak galdetzen du ASVP izateko formakuntza berezirik behar ote den, edo edonor aurkez daitekeen.

ZZN-ak ihardesten dio eginkizun hori beteko duen pertsonak formakuntzak egin beharko dituela. Zehazten du arrats honetan irekiko diren bi ASVP postuak ez direla nahitaez irekiko datorren urtean. Herriak bi ASVP kontratatzeko aukera atxikitzen du baldin eta udaltzainik ez bada. Beraz aurten 2 ASVP izanen dira. Lehena uztailearen 2an hasiko da, eta egokitzapen partziala behar duen langilea uztaile erditsutan hasiko da, prokuradorearen akreditazioa eskuratzeko denboran.

Bacardatz jaunak galdetzen du ea ASVP batek udaltzain baten gauza berak egin ditzakeen.

Auzapez andereak ezetz.

Bacardatz jaunak gehitzen du udaltzainak dituen eskumen batzuk ASVP-ek ezingo dituztela bete. Beraz, ezin dute ordezkatu.

Jougleux andereak gehitzen du ezinbestekoa dela udaltzain bat kontratatzea.

Bacardatz jaunak galdetzen du udaltzainik ez den artean nork beteko dituen haren eskumenak.

ZZN-ak ihardesten dio orain udaltzaina erialdian dela eta herriko beste langile batzuek egiten dutela bere lana, bereziki udal ordenantzen erredakzioa.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Aho batez onartua.

Auzapez andereak oroitarazten du 2017ko ekainaren 26ko erabaki batean, Herriko Biltzarrak kontratupeko enplegu bat sortu zuela, urte baterako, ama-eskolan ABLA (ATSEM) eta garbiketa langile postuan. Orain arte postu horretan zegoen pertsonak lan bikaina egin du ikasturte osoan eta ABLA konkurtsoa pasatzera engaiatu da, libre dagoen postuan ikastaldia egiteko. ABLA konkurtsoa erdiesten duen artean, eta lanean segitzeko aukera ukan dezan, Herriko Biltzarrari proposatzen dio kontratu peko ABLA postu bat sortzea urte baterako, hots 2018ko agorrilaren 21etik 2019ko agorrilaren 20ra.

Auzapez andereak bozkara ezartzen du.

Aho batez onartua.

21 – Auzapezaren erabakien komunikazioa.

Lurralde Kolektibitateen frantses Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, eta Herriko Biltzarraren 2017ko uztailaren 22ko erabakia dela-eta, honakoen komunikazioa egiten da:

Hilerriko kontzesioen hartzea eta uzteari buruzko erabakiak, 2018ko martxoaren 11tik maiatzaren 19ra:

- 15 urteko kontzesioen erostea (lurrean) : 1
- 30 urteko kontzesioen erostea (lurrean): 1
- 30 urteko kontzesioen erostea (+ columbarium): 1

Hilerriko kontzesio hauen diru-sartzea 820 €koa da eta hilobi/columbarium-ena 655 €koa, beraz orotara 1 475 €.

22 – Orotarikoak.

➤ Auzapez andereak jakitera ematen du SEASKAk mozio bat helarazi ziola orain 15 egun, herriak izenpetu zezan. Gehiengoko taldeari aurkeztu zitzaion. Mozioa Herriko Etxeko idazkaritzan dago izenpetu nahi duenarentzat. Mozioaren edukiaz: SEASKAk Akademiari 25 irakasle postu eskatzen zituen eta Akademiak 5,5 baizik ez ditu onartu.

➤ Auzapez andereak adierazten du Behereko Plazako besta komitearen zailtasunez gauza anitz entzuten dela. Egia da. Kanboko herriak salaketa bat ezarri du Jendarmerian lehengo besten komiteko bulegoaren aurka. Jendarmeria inkesta egiten ari da eta horren ondotik herriak argitu gabe dauden galderei erantzunak ukanen ditu.

Lespade andereak eranstean du bestak aitzineko urteetan bezalaxe iraganen direla. Behereko Plazako gazteek espero dute zikiroan eta asteazkeneko bazkarian jende izanen dela eta behar bezala errezibituak izanen direla leku guztietan.

➤ Noblia andereak biltzarkideei jakitera ematen die 2018ko maiatzaren 14ean akademia ikuskariak baiezkoa eman diola herriko hiru eskolak lau eguneko astera pasa daitezen, baita hauen ordutegi berriei ere.

➤ Auzapez andereak denei proposatzen die herriko webgunera joatea ekainean eginen diren animazio guztien berri hartzeko. Bestalde asteburuan iragan diren lorategiko hitzorduak aipatu ditu. Larunbatean 2 000 bisitari izan da, igande goizean ere, baina arratsaldean goizik dena bildu behar izan zuten ekaitzarengatik.

Aiçaguerre andereak ohartarazten du ekaitzetik babesteko jendeak zalditegira sartu zirela eta teilatutik itokinak zeudela, jakinez berinak berrituak izan zirela.

➤ Auzapez andereak jakitera ematen du iragan maiatzaren 28an Pauline Martinez-Perez lanean hasi dela Arnagako kontserbatzaile-orde postuan.

➤ Auzapez andereak adierazten du harrera bat egin zaiola Kanboko Errugbi Taldeari ekainaren 8an 19:00etan, Euskal Kostaldea-Landak lehiaketako txapeldun izateagatik eta ondorioz 3. Federalera pasatzeagatik. Zehazten du Biltzarkide guztiek gomita ukan zutela.

➤ Hiriart-Urruty andereak asteazken arratsaldean Kanboko skateparkean izan den gertakari larria azpimarratu nahi luke. Hamabi urteko haur bat ospitalera eraman behar izan dute heldu gazte batek egin zion eraso bortitzaren ondorioz. Jendarmeriak erasotzailea atxilotu du. Lehen

norbaitek aipatu du parke publikoan droga trafikoa badela, baina badirudi ere skatepark horretan segurtasuna ez dela bermatua belaunaldi nahasketarengatik. Bere taldeak kirol ekipamendu horri buruzko hausnarketa bat egitea proposatzen du. Espero du Herriak oraindik baduela Kanbon Gazteen Informazio Gune bat ezartzeko asmoa. Hortaz, zergatik ez pentsatu hezitzaileak denbora zati bat GIG-an egitea eta beste zati bat skatepark hori animatzen. Ezinbestekoa da leku hori segurtatzea. Biziki erabilia da, gazteek anitz maite dute, baina zoritxarrez arriskutsua da. Familiek ez dituzte beren haurrak hara lasai igortzen.

Auzapez andereak dio herriak eraso horren berri izan duela. Poliziak erasotzailea ezagutzen zuen eta oren bat barne atxilotua zuten. Jendarmeria ekintza plan batean pentsatzen ari da, baina ezinezkoa da jendarme bat denbora osoz hor uztea. Bistan da beretzat ere arazo kezagarria dela.

- Beyrie anderearen ustez herriak beste behin ez ditu aurreak hartu, eta orain aterabideak atxeman behar dira. « Egiten dugun proposamena gertakariak aitzin hausnarketa bat egitea da, gazteak elkartzea, proiektuan parte araztea, egoera lerra ez dadin, eta funtsean gazterik ospitalera edo kartzelara sar ez dadin, halakoan berantegi izanen baita.»

Auzapez andereak Herriko Biltzarraren saioa 21:15etan hesten du.